

# Ipuin oro dakit

Gauza gehiegi ez dakit, egia esan.  
Ikusi dudana mintzo naiz soilik.  
Eta ikusi dut:  
gizakien sehaska ipuinek kulunkatzen dutela  
gizakiaren bizi-larritasuna ipuinek itotzen dutela  
gizakiaren nigarren tapoi direla ipuinak  
gizakiaren hezurak ipuinek lurperatzen dituztela

eta gizakiaren bildurrak...  
ipuin guztiak asmatu ditu.  
Ez dakit gauza gehiegi, egia da,  
baina ipuin guzti horiekin lokartu naute,  
eta ipuin oro dakit.

– León Felipe

**EL PRESSENTIMENT**

N. 68

[www.elpresentiment.net](http://www.elpresentiment.net)

11.09.2018